



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

## EUSKO LEGEBILTZARREKO KAFETEGI-ZERBITZUAREN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA

### 1.- HELBURUA

Klausula-agiri honen xedea Eusko Legebiltzarreko kafetegi-zerbitzua arautzea da.

### 2. EDUKIA ETA ZERBITZUAREN KOKAPENA

2.1. Kafetegi-zerbitzua, Eusko Legebiltzarraren egoitzan (Becerro de Bengoa kalea, z.g., Vitoria-Gasteiz) horretarako prestatuta dauden lokaletan emango da.

Legebiltzarreko Administrazioak zehaztuko du zein lokal erabiliko den edo erabiliko diren merkantziak jasotzeko eta gordetzeko.

2.2. Legebiltzarreko Administrazioak horrela proposatuz gero, Legebiltzarreko Mahaiak arau hauek alda ditzake zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko. Besterik adierazi ezean, honako hauek izango dira kafetegia erabiltzeko gidalerroak.

- a) Kafetegia legebiltzarkideen, Legebiltzarraren langileen edo legebiltzar-taldeen zerbitzuan egongo da.
- b) Halaber, kafetegi-zerbitzua erabili ahal izango dute legebiltzar-etxean behar bezala baimenduta dauden gainerako pertsonak.

2.3. Debekatuta dago zerbitzua ematea horretarako ezarritako lokaletatik kanpo, Legebiltzarreko Administrazioak berak eskatuta izan ezik. Azken puntu horri dagokionez, eman beharreko zerbitzuak barne hartzen du Eusko Legebiltzarreko Mahaiari, Lehendakaritzaren zein Mahaiaren bisitei eta horiek egindako harreretan bertaratutakoei eta Legebiltzarreko organoetan agerraldiak egingo dituztenei eskaini beharreko arreta, betiere Legebiltzarreko zerbitzuek hala adierazten dutenean, ahal dela garaiz programatuta. Zerbitzu horiek unean-unean zehaztutako tokian eskainiko dira.





### 3. ORDUTEGIA

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak ezarriko du ordutegia, esleipendunarekin aldez aurretik adostuta, eta Legebiltzarreko agendako jardueretara egokituko da. Zerbitzua, orokorrean, astelehenetik ostiralera eskainiko da. Dena den, hala nahi izanez gero Legebiltzarreko Administrazioak eska dezake, salbuespen gisa, larunbat, igande edo jaiegunen batean ekitaldiren bat antolatzen duenean, kafetegi-zerbitzua eskaintzea.

### 4. GARBIKETA

4.1. Esleipendunak egin beharko du zerbitzua emateko erabilitako gauza guztien garbiketa: tresnak, altzariak, beirateria, mahai-tresneria eta abar. Era berean, kafetegiko pertsonalak bakarrik erabiltzekoak diren tokiak (sukaldea, eta abar) garbitu beharko ditu. Toki horietan beti garbi egon beharko dira, lurra, altzariak, instalazioak, makinak, tresneria eta abar. Higiene- eta osasun-ikuskaritzak lokalak ikuskatu ahal izango ditu eta Legebiltzarreko Administrazioak eman ditzakeen garbiketarako arau orokorrak bete beharko dira.

4.2. Publikoak erabiltzekoak diren kafetegiko lokalen garbiketa Eusko Legebiltzarreko garbiketa-zerbitzuek egingo dute.

Hala ere, esleipendun enpresaren langileek behar beste garbiketa arin egin beharko dute egunean zehar, honelako lokalek eskatzen dituzten higiene-eta osasun-baldintzak betetzeko.

4.3. Zaborra estalkidun ontzi itxietan gordeko da eta ontzien barruan behar beste alditan aldatuko diren erabili eta botatzeko plastikozko poltsak ezarriko dira.

Kontratuaren esleipena jasotzen duen enpresako langileek Eusko Legebiltzarrak adierazitako tokian edo edukiontzietan utziko dute zaborra. Ontziak eta estalkiak ur eta detergentez garbitu beharko dira egunean behin gutxienez.

### 5.- TRESNERIA ETA INSTALAZIOEN INBENTARIOA

5.1. Administrazioak esleipendunari utziko dizkio kontratistak eta Legebiltzarreko Administrazioak sinatuko duten emate-aktan adieraziko diren lokal, altzairu eta tresnak, hain zuzen ere, I. eranskinean adierazten direnak.

5.2. Eusko Legebiltzarrak utzitako instalazio eta altzairuen gaineko eskubiderik ez du



izango kontratistak, baina garbi eta erabiltzeko egoera onean mantendu beharko ditu.

5.3. Esleipendunak ezin izango du obrarik egin kafetegiko lokaletan Eusko Legebiltzarraren baimenik gabe. Berrikuntzaren bat adostuko balitz, erakundearen onurarako geratuko litzateke, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.4. Zerbitzua emate aldera, kontratu hau betez Administrazioak esleipendunari lokalak eta beste edozein ondasun lagatzeak ez dakar kontratistaren aldeko inolako eskubide errealik. Beraz, edozein arrazoiengatik kontratua amaitutzat ematen bada, esleipendunak lokalak utzi beharko ditu eta kontratu honen bidez Administrazioarengandik erabilerako emakidan jasotako guztia bueltatu beharko du zortzi eguneko gehienezko epearen barruan, errekerimendua egiten den egunetik zenbatzen hasita, eta ez du erretentzio-eskubiderik izango, ez eta Legebiltzarreko Administrazioaren aurrean izan dezakeen bestelako eskubiderekin konpentsatzeko eskubiderik ere.

5.5. Esleipendunak bere kontu egin beharko ditu kafetegiko tresna eta instalazioen mantentze-ikuskapen eta konponketak, Administrazioarekin sinatutako zerbitzu-kontratua indarrean den bitartean.

5.6. Esleipendunak altzariak, ontziak, beirak, mihiseak, mahai-tresnak eta beharrezkotzat jotzen dituen gainerako tresna osagarriak, guztiak ere kalitate onekoak, jarri beharko ditu. Eusko Legebiltzarrak esleipendunaren proposamena onartzeko edo proposamenaren aldaketa eskatzeko eskubidea izango du proposamenak baldintza egokiak betetzen ez baditu. Tresneria egoera onean mantenduko da eta ezin izango dira hondatutako piezak erabili.

5.7. Kontratu-epa amaituta, azken inbentario bat egingo da eta bertan adieraziko da kontratistak jasotako baliabideak bueltatu dituela, jaso zituen antzerako kopuru eta kontserbazio-egoeran.

## 6.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Esleipendunak laneko segurtasun eta osasunaren alorreko arauk ezarritako betebeharrak bete beharko ditu:

- Laneko arriskuen ebaluazioa egin izana, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoari jarraiki prebentzioa antolatze modalitatearen bat baliatuta; eta prebentzioko jardura-plan bat egin izana, azken hau beharrezkoa balitz.



- Hala eskatzen duten antolakuntza-modalitateetarako aurreikusita dagoen prebentzio-sistemen auditoria burutu izana, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen utarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 29 . artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 7.- LANGILEEN UNIFORMEA ETA IDENTIFIKAZIOA

Kontratistak, bizikidetzaren arauak kontuan hartuta, itxura-, portaera- eta txukuntasun-baldintza egokiak betearaziko dizkie bere zerbitzuan dauden langileei. Kafetegiaz arduratzen diren langileek janzkera egoki eta uniformea izango dute. Edonola ere, langileen jantziak esleipendunak ordainduko ditu.

## 8.- ERREKLAMAZIO-LIBURUA

Kafetegiko bezeroek eskuragarri izango dute erreklamazio-liburua eta horren berri emango duen ohar bat ikusgai egongo da beti. Liburu hori Eusko Legebiltzarreko Administrazioari aurkeztuko zaio bertan erreklamazio bat idatzi eta berehala; bai eta hileroko ere, hileko lehen egun baliiodunean, bidalketa kudeatzeko.

## 9.- PREZIO-ZERRENDAREN PUBLIZITATEA ETA ONARPENA

9.1. Eskainitako prezioekin bat egiten duen eta Legebiltzarreko Administrazioaren oniritzia duen prezio-zerrenda ikusgai izateko betebeharra du esleipendunak, administrazio-klausula berezien agiriaren II. eranskinean jasotakoari jarraiki. Prezioak aldatzeko beharrezkoa izango da Legebiltzarreko Administrazioa ados egotea; azken horrek, guztiz edo hein batean, onartu egingo ditu esleipendunak proposatutako prezio-aldaketa arrazoituak, betiere, gehikuntza urteko KPIa baino handiagoa ez bada.

Esleipendunak ezin izango ditu prezioak aldatu Legebiltzarreko Administrazioaren idatzizko baimena jaso arte.

9.2. Esleipendunak emandako zerbitzuak erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte, esleipendunak eskainitako prezioen arabera.

Esleipendunak emandako zerbitzuak erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte, esleipendunak eskainitako prezioen arabera.

9.3. Esleipendunak, orokorrean, prezioen zerrendan agertzen diren produktuak izan beharko ditu.



## 10.- HIGIENE- ETA OSASUN-BETEBEHARRAK

10.1. Elikagaiak beirazko estalkiekin babestuta egongo dira, eta debekatuta dago horien gainean elikagaiak jartzea. Opilak eta pastelak pintzez maneatuko dira beti. Maionesa, saltsak, esne-gaina, krema eta antzeko elikagaiak hozkailuan gordeko dira, bai eta egunean bertan kontsumitzen ez diren elikagai galkorrak ere. Arrautz-produktuekin egindako produktuei dagokienez, 22/1989 Jarraibidea gogorarazten da, zeinean eransten den Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 1989ko otsailaren 13ko Agindua, mota honetako produktuak egiteko eta kontserbatzeko arauak jasotzen dituena.

10.2. Esleipendunak honako arauak bete eta aplikatu beharko ditu: Osasun sailburuaren 2002ko martxoaren 15eko Agindua, jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko dena; Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua, 1961eko azaroaren 30ekoa; Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 12ko 14/1983 Agindua, aipatutako erregelamendua aplikatzeko arau tekniko osagarriak ezartzen dituena; eta indarrean diren arlo honi buruzko gainerako arau tekniko-sanitarioak.

10.3. Esleipendunak ostalaritza-establezimenduei buruzko tokiko araudia ere bete beharko du, horrek eragiten dion puntuetan.

10.4. Kafetegian, Eusko Legebiltzarraren gainerako aretoetan bezala, debekatuta dago erretzea.

10.5. Aurreko paragrafoetan aipatutako araudiez gain, kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak higiene- eta osasun-betebeharren arloan ematen diren arau berriak ere bete beharko ditu.

## 11.- EUSKO LEGEBILTZARRAK EZARRIKO DITUEN KONTROLAK

11.1. Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen dituen noizbehinkako kalitate-kontrolak ezarriko ditu, eta horien bidez ondoko hauek egiaztatuko dira: sukaldean prestatutako jakien kalitate eta itxura; prezioak; elikagaiak, lokalak eta materialak erabiltzerakoan higiene-arauak betetzen diren ala ez; eta langileen txukuntasuna. Arazoren bat antzematen bada esleipendunari jakinaraziko zaio.

Ikuskapena egiten denean zerbitzuaren kalitatearen berri emango duen akta egindo da eta Legebiltzarreko Administrazioaren ordezkari batek sinatuko du akta hori.



11.2. Goian aipatutako kontrolek ez dituzte kanpo uzten osasun publikoko agintariak edo OSALANeko Administrazio Zuzendariordeak egin ditzaketanak.

Legebiltzarreko Administrazioak aipatutako txostenetan azaldutako akatsen berri emango dio esleipendunari, horiek konpon ditzan.

11.3. Legebiltzarreko Administrazioak esleipendunari elikagaiak gorde eta prestatzeko utzi dizkion lokalak ikuskatu ahal izango ditu.

11.4. Aldeek kontratua betetzen den bitartean egokitzat jotzen dituzten bilerak eta harremanak baztertu gabe, sei hilero esleipendunaren eta Legebiltzarreko Administrazioaren arduradun bana bildu egingo dira kontratuaren martxaren eta zerbitzuaren kalitatearen jarraipena egiteko, hobekuntza-proposamenak aztertzeko eta sor litezkeen erreklamazioak, kexak eta gainerako gorabeherak ikuskatzeko. Aipatutako bileretara Langileen Batzordeko ordezkari bat joan ahal izango da, hala eskatzen duenean. Bilera bakoitzari dagokion akta egingo da.

## 12.- ZERBITZUKO LANGILEAK

12.1. Esleipendunak bere enpresari atxikitako giza baliabideekin emango du zerbitzua. Beraz, esleipendunaren kontura izango dira langile horiek lan eta gizarte arloan indarrean dagoen legediaren arabera dituzten gastu eta karga sozial guztiak, lan-istripuak eta gaixotasunak barne hartuta.

12.2. Kontratua edo haren luzapenetako edozein indarrean dagoelarik esleipendunak lan-kontratuak egin behar baditu kontratu honek xede duen jarduera aurrera eramateko, kontratu horiek egin baino lehen kontratu-zirriborroa bidali beharko dio Eusko Legebiltzarreko Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irizpen bat emango du, gehienez hamabost egun baliodunen barruan, zirriborroak indarrean dagoen legediak lan arloan ezarritako eskakizunak betetzeari buruz. Irizpen hori aipatutako epearen barruan ematen ez bada, aldekotzat hartuko da eta esleipendunak kontratua sinatu ahal izango du.

Eusko Legebiltzarrak inola ere ez ditu bere egingo esleipendunak kontratu honen xede den zerbitzua emateko sinatutako lan-kontratuak. Horregatik, ez da inola ere aplikagarritzat joko Langileen Estatutuari buruzko martxoaren 10eko 8/1980 Legearen 44. artikuluan enpresa-oinordetza kasuetarako aurreikusitakoa.

12.3. Esleipendunak beti bete beharko ditu lan, gizarte-segurantzak, laneko segurtasun eta higiena, eta hitzarmen kolektiboak dagokienez indarrean dauden eta aplikagarriak diren xedapenak.



### 13.- BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK

Orokorrean, esleipendunek honako betebehar hauek bete beharko dituzte:

Zerbitzua modu erregularrean eta jarraituan ematea, Administrazioak ezarritako ordutegiaren arabera.

Era berean, bezeroei zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz emateko adinako gaitasuna duten langileak eduki beharko ditu esleipendunak.

Astelehenetik ostiralera eguneko menua eskaintzea. Menu horrek, gutxienez, bi aukera ezberdin eskainiko ditu lehenengo eta bigarren plateretarako eta postrerako, azken horretan fruta freskoa eskainiko delarik.

### 14.- LAN EGITASMOA

Eskaintza-egileak lanerako plan bat edo negozio-plan bat aurkeztuko du. Bertan honako datu hauek jasoko dira:

- a.- Eguneroko ohiko zerbitzuari esleituko zaion pertsona kopurua, horien ordutegiak eta aurreikusitako errefortzuak.
- b.- Arduraduna nor izango den zehaztea.
- c.- Taldea osatzen duten pertsona guztien lanbide-perfila eta bakoitzak beteko dituen zereginak.
- d.- Enpresa esleipendunari kudeaketarako euskarria emateko erabiliko diren sistema edo pertsonak: eskaerak, kontabilitatea, nominak, gizarte-segurantzak.
- e.- Hileko menuen plana.

### 15.- BESTELAKOAK

15.1. Esleipendunak ez du inolako argitalpenik egingo, ez eta inolako kartel, idazkun edo iragarkirik jarriko ere.

15.2. Ustiapenarekin hasi aurretik, esleipendunak honako hauek aurkeztu beharko ditu: Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren 10. puntuan adierazitako aseguru-polizaren kopia eta aseguru kontratatzeke prima ordaindu izanaren frogagiria.



## 16.- ZERBITZUA AMAITZEA

Zerbitzua amaitutzat emango da ondorengo arrazoiren baten ondorioz:

- Kontratuaren edo bere luzapenen epea amaitzea.
- Kontratua suntsitzea.
- Enpresa esleipenduna desegitea, ordainketak etetea edo porrot egitea.
- Esleipenduna zerbitzua ematerakoan arduragabe jardun izana, eta ondorioz, zerbitzuari dagokionez eska daitekeen gutxieneko mailara ez iristea.
- Agiri honen 11. atalean ezarritakoa ez betetzea.
- OSALANeko Administrazio Zuzendariordeak edo Eusko Legebiltzarrak burututako azterketetan behin eta berriro hutsuneak izatea.

## 17.- KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira, Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren 39. puntuan adierazitakoak eta horiek gertatuz gero, ez da fidantza itzuliko eta ez da kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.

## 18.- LOKALAK ETA INSTALAZIOAK EMATEA

Kontratua amaitzean, esleipendunak lokalak eta instalazioak egoera onean utzi beharko ditu, Administrazioak errekerimendua egiten duen egunetik hasi eta 8 eguneko epean.

## 19.- ESKUBIDEAK LAGATZEA

Ezin izango zaio kontratua laga inolako pertsona fisiko edo juridikori.



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

ITZULPEN ZERBITZUA  
SERVICIO DE TRADUCCIONES

I. ERANSKINA

## EUSKO LEGEBILTZARREKO KAFETEGIKO ALTZARIEN ZERRENDA

<u>Altzaria</u>	<u>Kopurua</u>
Zurezko armairua, 1,60 x 0,45 x 2,00	1
Zurezko armairua, 2,80 x 1,60 x 2,70	1
Zurezko mahai karratua, metalezko oin batekin	9
Zurezko mahai 1,60 x 0,80	2
Zurezko mahai 2,40 x 1,20	1
Zurezko mahai biribila, metalezko oin batekin	2
Aulkia, zurezko egiturearekin eta sarezko bizkarrarekin	8
Zurezko aulkia, zumezko eserlekuarekin	40
"Flash" aulki tolesgarria	30
Taburete altua	10
Taburete baxua	8
Arasa, ate beiradunekin eta mahai-tresnetarako tiraderekin	1
32 hazbeteko LCD telebista-aparatua	1
Bi besoetako FAEMA kafe-makina	1
CONTROL ELEGANCE modeloko kafe-makina	1
Kafe-makinari eusteko armairua	1
CASIO markako kutxa-erregistratzailea	1
Izotza egiteko makina	1
COMERSA pintxo-erakustegia	1
1.420 mm-ko zabalera duen lan-mahai	1
Kromodurozko plantxa	2
Irabiagailu industrial	1
INOX irabiagailu-ontzia	1
GC-250 modeloko sakote-ebakigailua	1
LIEBHERR hozkailua	2
FRANKE EKO-6 markako frijigailua	2
Konbekzio-labea	1





Panasonic mikrouhin-labea	1
SAMMIC V350 ontzi-garbigailua	1
SAMMIC edalontzi-garbigailuak	1

### Altzaria

### Kopurua

A-500 armairu-hozkailua	2
Janari izoztuetarako armairu-hozkailua	1
Botiletarako hozkailua	2
FRANKE GK mando bakarreko txorrotak	1
Berogailu elektrikoa	1
Hondakin-edukiontzi ekologikoa	1
Poliuretanozko edukiontzi horia	1
Bideozaintzako kamera	2
errezel biribilgarriak	3
Plate Mate horma-euskarria	1
Pletina herdoilezina 120X60	2
Hormako apal herdoilezina	3

Eusko legebiltzarra, 2011ko apirilak 12

